

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza diputatuaren 133/2019 Foru Agindua, maiatzaren 24koa, Ibarako herrigune historikoko Birgaitze Integratuko Plan Bereziko Ingurumen Txosten Estrategikoa ematen duena

Erreferentziatzko Plan Bereziaren izapidetzea Ingurumen Ebaluazio Estrategiko Sinplifikatuaren prozeduraren menpe dago; prozedura hori abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, arautzen du.

Prozedura horren barruan, 2018ko azaroaren 28an, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailak aipatutako plan bereziari buruzko ingurumen agiri estrategikoa jaso zuen Aramaio Udalarengandik, ingurumena ebaluatzeko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen bidez araututako gutxieneko edukiaren arabera, baita hirigintza agiria ere.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, lehen aipatutako dokumentazio hori jaso ondoren, kontsultak egiteko aldiari hasiera eman zion eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunei dagokienez, 45 egun balioduneko epearekin, 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritako moduan.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2019ko maiatzaren 22an eman du Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (18/148 espedientea).

1. Plan bereziaren ezaugarrien laburpen motza. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Plan bereziaren ezaugarrien laburpena:

Plan berezi honen azken helburua Aramaio herrigune historikoa birgaitzea da, gaur egungo betekizun funtzional eta sozio-kulturaletarako egokiak diren eraikinen sare eta sare urbanizatuen balioa agerraraziz.

Planaren ingurumen helburuen artean honako hauek daude:

- Nardeaga kalean espazio libre publikoa lortzea.
- Eraikinak uholde arriskutik babestea, horretarako egin den azterlan hidraulikoan ezarritakoarekin bat etorriz.

Birgaitze Integratuko Plan Bereziak (BIPB) aldaketak proposatu ditu herrigune historiko osoan, bi arlotan: existitzen diren eraikuntza aprobetxamenduetan eta existitzen diren eraikinetan (birgaitze, zaintza eta eraberritzeko lan eta esku hartzeei dagokienez). Zehazki esateko, jarduketa hauek proposatu dira:

– Eraikitako multzoa: Eraikitako ondarea eta ondare arkeologikoa babestea proposatzen da, partzelazioa babestea, ondoriozko sestratik gorako eraikinaren erabilera, altuera, bolumena, osaera, materialak eta okupazioa arautzea.

– Egoitza eraikina: Indarrean dagoen BIPBren ondoriozko eraikigarritasunak finkatzea, baita eraikin profila ere. Eraikuntzako oinarrizko irizpideak ezarri dira.

– Komunitate ekipamendua: BIPBek ez du komunitate ekipamenduari dagokionez inolako jarduketarik aurreikusi.

– Bide sarea eta aparkalekua: BIPBean ez da aparkaleku berriak sortzeari lotutako jarduketarik aurreikusi (ez publikoak, ez pribatuak) eremuan bertan, salbu eta proposatutako egoitza eraikin berrirako beharrezkoak direnak; gainera, arazo hori konpontzeko irtenbidea herrigune historikoaren alboan dauden eremuetara bideratzen du, hartzeko gaitasuna baitute.

– Espazio libreen sistema: Herrigune historikoari lurzoru publiko berria ematea proposatu da, aisialdiko espazio modura erabiltzeko eta, horrela, eremuan zehar espazio libreak lortzea indartzeko.

1.2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa:

BIPBren jardun eremua Ibarra herrigune historikoari dagokio (Aramaio udalerrian); lurzoru urbanizatu finkatua da, eta eraikin historikoak, eraikin modernoagoak dituzten eremuak, autokontsumorako baratzeak, plaza eta hiri parkeak biltzen dira bertan.



BIPBren eremuaren irudia

1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako agirietan azaltzen denez, hiru aukera hartu dira kontuan:


– “0” aukera (ez da aukeratu): Jarduketarik ez egitea ekarriko luke eta, horrenbestez, indarrean dagoen BIPBren proposamenei eustea.

– “1” aukera (ez da aukeratu): Eremu hauetan eraikuntza berriko jarduketak egitea ekarriko luke; atxikitako planoan jaso dira:

- A7 eta A8: Egoitza eraikina PB+2PA+BC eraikin profila duen bloke batean, hegalaren gehieneko altuera 10,5 metrokoa izanik, erreka mugara 3 m-ko distantzia.

- B5 eta B6: Existitzen den eraikinaren mehelinera atxikitako egoitza eraikin berria, eraikin profilari eta finkatutakoaren albo lerrokadurei eutsiz, C10 lurzuria lagapen publiko moduan lortuz.

- C19 eta C20: Lurzatiei dagokien eraikin aprobetxamenduaren kokapena horien lerrokadurei eusten dien jarduketa batean.
- D3, D4 eta D5: Hiru lurzatieetako bakoitzaren banakako garapena proposatzea, gaur egungo egoera desblokeatzea ahalbidetuz.
- E3: Egoitza aprobetxamenduak finkatzea, ipar-ekialdean kokatutako eraikinaren lerrokadurei eusten dien jarduketa batean.
- F1, F2, E9 eta E10: Bi orubeko egoitza eraikina eta pilotaleku-espazio libre bat lortzea. Eraikin profila eraikin mugakideen berdina.
- H9 eta H10: Egoitza eraikin berria, Nardeaga kalearen espazio interstizial mugakide bat betez; bertan gaur egun antolamendutik kanpo dauden bi eraikin daude.



– “2” aukera (aukeratutakoa): 1. aukera garatzea ekarriko luke, zuzenduta azterlan hidraulikoak ezarritako lehenespenezko fluxu lerroaren ondoriozko mugekin (zona arriskutsua), sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaldu bezala egindakoa. Horrek esan nahi du A7, A8, E9 eta E10 lurzatieetan eraikitzeko aukera desagertu egingo dela, balizko jarduketak aipatutako lehenespenezko fluxu lerroan jasota daudelako.

2. Kontsulta fasearen laburpena

2018ko azaroaren 30ean, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak hasiera eman zion eragindako administrazio publikoei eta interesa duten pertsoneri kontsulta egiteko faseari, araututako prozedurari jarraituz. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarteentz zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA – Uraren Euskal Agentzia	
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkartea	
GAIA elkartea	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartasuna	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	√
Arabako Kontzejuen Elkartea	
SEO Bird Life	
Aramaioko Udala	
Gorbeialdeko kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	√

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoak, laburbilduta (alegazio edo adierazpenen kopia osoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 18/148 espedientean eta www.araba.eus web orrian daude jasota):

- Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritzak txosten bat egin du, eta hor, Ibarrako herrigune historikoaren BIPBren laburpen bat egiteaz gain, zenbait gogoeta ere nabarmendu dira: “Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren eremua Ibarrako herrigune historikora dago mugatuta; hortaz, ez dauka eraginik landa lurzoruan eta, hala, ez dauka inolako eraginik nekazaritza eta abeltzaintza jardueretan. Ez du eraginik, ezta ere, Arabako Lurralde Historikoko landa bideen erregistroan inskribatutako landa bideetan.”

- Museo eta Arkeologia Zerbitzuak txostena eman du, azalduz, batetik, 7/1990 Legea kontuan hartu behar dela, Euskal kultur ondareari buruzkoa, eta, bestetik, Aramaioko Ibarrako ondare arkeologikoa ingurumen agiri estrategikoaren 25. orrian aipatutako ustezko arkeologia zonek osatzen dutela, baita Eusko Jaurlaritzak kalifikatu edo inbentarioan jasotzeko proposatutakoek ere.

- IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak azaldu duenez, “Erakunde honetan ez dago jasota aipatutako kokapenetan lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik egon denik; horrenbestez, ez dago jasota lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan”. Era berean, hau dio: “kutsadura zantzurik agertuz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko 4/2015 Legearen 22. artikuluan ezarritakoa betez”.

- Euskal Kultura Ondarearen Zuzendaritzak azaldu duenez, “dokumentazioa berrikusi ondoren, jakinarazi behar dizugu, oro har, plan horretan kultura ondareari emandako tratamendua egokia dela.” Hala ere, BIPBeko eremua modu grafikoan jaso eta babestutako elementuak nabarmendu behar dela aipatu da. Horrez gain, Kultura Ondareko Zuzendaritzak berriki eguneratutako katalogoak kontsultatzea gomendatzen da; hortaz, Euskal Kultura Ondarearen Zentroak prestatutako txostena atxiki da.

- Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak txosten osatua aurkeztu du, eta, bertan, jardun eremu bakoitza sakon aztertu aurretik, balorazio orokorra egin du:

“Ibarrako hiri agertoki horren barruan, existitzen diren eraikinei lotutako espazio libre pribatuen garrantzia eta berezitasunak nabarmendu behar dira, aisialdi leku edo baratze moduan erabiltzen direnak. Kultura ondarea babesteko ikuspuntutik, baratzeen interesak bi alderdi dituela ulertzen da: alde batetik, eraikuntza unitatearen zati berezi bat dira, eta eraikinaren erabilera osatzen dute; beste alde batetik, osagai erabakigarriak dira Ibarrako herrigune historikoak berezko izaera gorde dezan, landa izaerari oso lotuta baitago. Kultura balio horiei eusteko, Ibarrako hirigintza analisisian baratzeek egiten duten funtzioa jaso behar da, eraikin berriak hartzeko gaitasuna duten lurzati huts gisa eskaintzen duten ageriko aukeraz gain. Horregatik, gure ustez, idatziko den BIPB agiriak espazio libre horiei buruzko azterlana izan beharko luke, eta etorkizunean babestu beharrekoak zehaztu beharko lituzke (I. Eranskin osatua atxiki da).

Ibarrako herrigune historikoari aniztasuna eta konplexutasuna eskaintzen dizkion beste alderdi bat ibai ibilbideak hiri bilbean integratzea da. Tarte horiek zedarritzen dituen eraikinaren atzeko fatxadek garapen tipologiko propioa izan dute, ingurumen balio nabarmena daukaten arkitektura elementuekin (batez ere galeriak eta hegaleko elementuak). Atezko espazio horien antolamenduak aukera eman beharko luke bolumen eta osaera aniztasuna gordetzeko (II. eranskina atxiki da).”

Eraikin berriak aurreikusi diren eremuen balorazioari dagokionez, hainbat eremutan oharrak eta ñabardurak egin dira; honako hauek nabarmendu behar dira:

- F1-F2-E9-E10 eremua: “Bi aukera proposatu dira, eta balorazio positiboena jaso du ibai alboan espazio librea eta Nardeaga kalean proposatutako eraikinean altuera baxuena proposatu duena” Halaber, eraikinaren atzealdearen eta baratze mugakideen artean integrazio handiagoa lortzea proposatu da, izaera berdeagoa eta etxeko neurriera egokituago dagoen eskala emanaz.

- D3-D4-D5 eremua: Eremu horretan bi eraikin proposatu dira: Bixente Goikoetxea plazako 14. zenbakia birgaitu eta babestea proposatzen da, eraistea eta, horren ordez, beste eraikin berri bat eraikitzea saihesteko. Beste eraikin berria “natura, paisaia eta kultura aldetik balio nabarmena” duen baratze batean jarriko litzateke.

- B5-B6 eremua: “Aurreikusitako eraikinak aintzat hartu beharko luke eraikin mugakidea (Ibargoia kaleko 25. zenbakia, udal mailako babes ertaineko eraikina), hegaleko kotan altuera gairatu gabe.”

Udal mailan babestutako ondasunen katalogoak jasotako higiezinaren balorazioari dagokionez, bi gai aipatu dira: Batetik, aurreko BIPBren katalogoaren eta oraingoaren artean higiezinaren ia erdiaren babes maila murriztea justifikatzeko eskaera egin du. Bestetik, honako elementu hauek katalogoaren parte izatea proposatu da: Ibargoia auzoko gurutzeta eta ibaiaren ibilbideari lotutako elementuak, baita zenbait zubi ere.

3. Eragina jaso lezaketan elementuetatik zeintzuk diren ingurumen balio handienekoak. Ingurumen eragin nagusiak

Lehenik eta behin nabarmendu behar da BIPBen eremua gizakiaren eragin handia duen hiri eremu batean dagoela, baina badaudela, halaber, ingurumen, paisaia eta kultura balio handiko area eta elementu jakin batzuk ere, esaterako Ibarra gunea zeharkatzen duten ibaien ibilbideak, baratzeak eta lorategiak eta ondare eraikinak.

Oro har ulertzen da BIPBek ez duela ingurumen ondorio esanguratsurik eragingo aipatutako inguruabarretan; egia da, halaber, beste era bateko ingurumen ondorioak izango lituzkeela onartu ondoren eraikuntza lanak egitean, eta horiek atal honetan aztertu dira.

Aztertu beharreko eragin nagusietako bat Ibarako herrigune historikoaren kultura ondarean eragin daitekeena da. BIPBek eraitsi, birgaitu eta eraikin berriak eraikitzeko jarduketak proposatzen ditu, eta horrek zuzeneko zein zeharkako ondorioak eragin ditzake eraikitako kultura ondarean. Ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuko prozedura honen kontsulta fasean Museo eta Arkeologia Zerbitzuak zein Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak zenbait txosten egin dituzte BIPBek kultura ondarean eragingo lituzkeen ondorioei dagokienez, eta, horren haritik, aintzat hartu beharko dira aipatutako ohar eta jarraibideak.

Bestalde, BIPBren inguruabarretan erreferentziazko esparruan etxebizitzak garatu eta egitea baimentze hutsak zenbait aldaketa ekarriko lituzke uraren hornidura eta saneamenduaren eskaeran. Hortaz, uraren arloan eskumena duen organoak horri buruz agintzen duena bete beharko da.

Bidenabar, sustatzaileak BIPBren dokumentuari azterlan hidrauliko bat ere gehitu dio; horretan oinarrituz justifikatu du hasieran aurreikusitako zenbait eremutan ez eraikitzea, besteak beste, A7, A8, E9 eta E10 zonetan; izan ere, aipatutako azterlan hidraulikoaren arabera, area horiek lehenespenezko fluxu lerro barruan daude, eta uholde arrisku handiko zonak dira. Horren haritik, egokitzat joko litzateke BIPBren sustatzaileak arlo hidraulikoaren organo eskudunari eskaera egitea BIPBn jasotako jarduketak behin betiko aztertzeko, egindako azterlan hidraulikoari dagokionez; izan ere, BIPBek D3, D4 eta D5 zonetan planteatzen duen eraikuntza jarduketak, ingurumen agiri estrategikoaren 5.2 atalean aurkeztutako uholde arriskuaren planoaren arabera, baliteke Aramaio ibaiaren 10 urteko itzuleraren eragin arina pairatzea; horrenbestez, ulertu daiteke jarduketa horien bateragarritasuna ez dela guztiz egokia, ezta azterlan hidraulikora egokitua ere. Nolanahi ere, uler daiteke arlo hidraulikoan eskuduna den organoak ezarri beharko lituzkeela horren inguruko xehetasunak.

Ingurumen agiri estrategikoan jasota dagoenez, gutxienez BIPBko gutxienez eremu batean (B5-B6) nekazaritza lanabesak gordetzeko etxolak daude baratzeen zonan, fibrozementuzko estalkiarekin. Fibrozementuzko estalkia, eremua eraldatu eta etxebizitza bat eraikitzeko, berme guztiekin kendu beharko da, indarreko legedia betez.

Bestalde, nabarmendu behar da jarduketak egin nahi diren BIPBko eremu batzuetan florako espezie exotiko inbaditzaileak antzeman direla, hain zuzen ere banbua (*Phyllostachys nigra*) eta panpa lezka (*Cortaderia selloana*). Ale horietako batzuk, gainera, ibaietatik gertu daude, eta horrek eragin are handiagoa sorraz dezake bioaniztasunean; izan ere, ibai bazterretako ekosistemek funtsezko betebeharra daukate konektibitatean, intereseko habitatak hartzen baitituzte eta horiek fauna espezie ugari babesa ematen dietelako, eta bereziki sentikorak dira espezie exotiko inbaditzaileekiko. Horren haritik, espezie exotiko inbaditzaileei aurre egiteko ingurumen agiri estrategikoaren 10.2 ataleko 7. epigrafean jasotako neurrien multzoa oso egokitzat jo da. 10.2 atalean aipatutako neurriak ere egokiak eta proportzionatuak dira BIPBek birgaitu edo eraitsi nahi dituen eraikinek har dezaketean fauna babesteko.

Azkenik, egokitzat jo da ahal den neurrian BIPBk gaur egun baratze eta/edo lorategi modura erabiltzen diren espazio batzuk horrela mantendu eta egokitzea, eraikin berriek partzialki hartuko dituztenak. Hala gertatzen da, esaterako, F1-F2 eremuaren hiri bioaniztasunari eusten betebeharrak garrantzitsua duen orubean; ez da guztiz okupatuko, zona bat espazio libre modura eta Nardeaga kalea Pedro Ignacio Barrutia kalearekin lotzeko espazio modura egongo litzatekeelako. BIPBetik eratorritako jarduketan ondorioz baratze eta lorategi espazioak galtzea konpentsatu zein zuzentzeko ingurumen agiri estrategikoan aurreikusitako ingurumen integratzioko neurriak ere egokitzat jo dira ingurumenari dagokionez.

4. Ondorioak: Ingurumen baldintzatzaileak

Ibarrako herrigune historikoaren Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren hirigintza agiriak aurreikusitako neurri oro gehitu beharko du ingurumenean edozein ondorio negatibo aurreikusi, murriztu eta ahal den neurrian zuzentzeko, hizpide dugun plana aplikatzean, ingurumen agiri estrategikoaren 10. atalean jasotakoak, sustatzaileak berak aurkeztutakoa; epigrafe hauetan egituratzen dira:

– Neurri orokorrak hiri lurzoruan:

- 1) Eremu guztietarako eraikuntzarako neurriak.
- 2) Geologia, geomorfologia eta lurzoruak babesteko neurriak.
- 3) Azaleko eta lur azpiko urak babesteko neurriak.
- 4) Populazioaren gaineko prebentzio neurriak.
- 5) Fauna babesteko neurri orokorrak.
- 6) Lorategien inguruko neurriak.
- 7) Espezie exotiko inbaditzaileei aurre egiteko neurriak.

– Neurri zehatzak:

- 8) Dagoeneko existitzen diren eraikinak birgaitzeko neurri zehatzak B5-B6, D3-D4-D5 eta C12-C20.
- 9) Eraikuntza berrietarako neurri zehatzak.
- 10) Harrizko murruekin birgaitzerako neurri zehatzak, H9-H10, D3-D4-D5, C19-C20 eta F1-F2-E8-E9-E10.
- 11) B5-B6 eremurako neurri zehatzak.
- 12) Neurri zehatzak F1-F2 espazio berde eta baratze lurzoruak konpentsatzeko.
- 13) D3-D4-D5 eremurako baratzeen lurzoria konpentsatzeko neurri zehatzak.

Halaber, beharrezkotzat jo da ingurumen agiri estrategikoaren 11. atala gehitzea, hirigintza dokumentuaren ingurumen arloko jarraipena egiteko aurreikusitako neurriak deskribatzeari buruzkoa.

Hirigintza dokumentuan aipatutako neurriak gehitzeaz gain, honako hauek ere txertatu beharko dira:

– BIPBren B5-B6 eremuan aurreikusitako jarduketak egitean nahitaez heldu beharko zaio gaur egun eremu horretan dagoen nekazaritza tresnen etxolaren amiantoeko estalkia kentzeari. Enpresa ziurtatu batek kenduko du, hondakin arriskutsuei begira eskudun den agintaritzak onartutako berariazko plan bat betez.

Horrenbestez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak, 40. artikuluan ematen dizkidan eskurantzak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ibarrako herrigune historikoko Birgaitze Integratuko Plan Berezi Ingurumen Txosten Estrategikoa ematea.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioarena, betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumenaren txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 24a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria

AMAIA BARREDO MARTÍN